

Antxiñako fotografixia



Zezenak Altzibarren

Astian pasau dira berrogeta bost urte Oñatiko San Migel eta Errosarixuetan zezen-korrída famauak eta zaratatsuak egin zira-
la: 1964ko jaixetan izan zan hori. **Juan Calleja** torero gaztia izan zan zezenketa harein antolatzaillia. Bueno, egixa esateko,
artian etzan torerua, nobillerua baiño. Alternatibia handik egun gutxira hartu eben Zaragazoko Pilariketan. Calleja izan
geben Oñatiko korrída harein antolatzaillia, hartarako hemengo hainbat tabernari eta herritarren laguntzaiaz balixauaz. Callejare-
kin batera **Angel Liarte** nobillerua be etorri zan. Bixak Aragoi aldekuak ziran. Oñatira lanera Caceres-etik heldu eta aspalditxuan
hemen bizi zan **Julian Barberok** be parte hartu eben egun hareittako korridetan.

Juan Zubia zanaren kroniketan agerketan xakun lez, XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan zezenketa batzuk egin ziran gure
herrixan: 1929kua izan zan, nunbaitt, ikusgarrixenetakua, urte haretan **korrida goiesko** dotoria moldau euen-eta. Gerraostian, bai-
ña, etzan aittatu dogun 1964kuaren adiñako beste zezen-ferixarik asmau. Dana dala, 1964an arazuak be izan ei ziran, diru-kontue-
tan garbittasun-faltiatatik, gorabehera bat baiño gehixago egon zalako, hain zuzen be. Baiña jentia ugari inguratu zan Lezesarri
auzuan jarrittako zezen-plaza portatillera. Urrixaren 4an, Errosarixoko bixamoneko nobilladan Callejak bi txekor hil zittuan eta Liartek
bat. Kuadrilla eta guzti jardun euen bixok eta ganaderixia Carrión de los Condes-eko (Palentzia) **Pedro Caminerorena** zan.

Argazkixa San Migel bixamoneko korrída-egunian atarata dago, **Altzibar** inguruan jaso zan zezen-plaza horretan. Graden atze-
kaldian ikusten dan etxia **Zahor** fabrikia dogu, orduantxe egitten zihardueiña. Eta ezaguketako moduan agiri diran gaztiok honeit-
txek dittuzue: Zutik ezkerrian, **Juanito Zubia** Olabarrietakua, ordurako kalia baldin bazan be; zutik eskuman, **Iñazio Aristegik**,
Atzeko kaleko **Eskolatxonekua**; honen atzian, kikuka, **Goio Altxaga** mutikotxua, Portalekukua; makurtuta, **Fernando Lukas**,
Kale Zaharrekua; eta eskumako ertzian, **Joxe Mari Uriarte**, Jaturabekua, baiña abenida aldian bizi zana. Korriden ondoren, herri-
ko zezenzale gaztientzat soka bariko bakillak ataraten zittuain areetera, baiña hareikin jolasian jardun ahal izateko, antolatzailliak
kobrau egitten euen. Zezenketok apartekuak izan ez baziran be, herrixan ondorixo batzuk itzi zittuain puska batian, Oñatin **bi zezen-**
peña sortu ziran-eta: Callejak Vitoria tabernan euki eben beria, eta Liartek Ona tabernan.

J.E.

Fotografixia Fernando Lukasek itzittakua da. Eta informaziñua Iñazio Aristegik,
Juanito Zubiak eta Fernandok berak eskuratu doskue. Milla esker danoi!